



EUROPA ✕ Kaspiar Itsasoa [-28m]

Pangea espedizioak osatu du laugarren bidaia, Europako gunerik sakonenera, Kaspiar Itsasora. Errusiara egindako bidaiak, guk ezagutzen dugunaren aldean, beste Europa agertu die Pangeako kideei. Kaspiar Itsasoak ere ohi baino ur maila altuagoa du udaberri garaiotan. Bidaia motza izan da Kaspiokoa, bi aste eskas. Handik itzuli orduko, Jordaniarako bidea hartu dute taldekideek. Itsaso Hila da euren hurrengo jomuga.

Europarik sakonenean

Josu Iztueta

Esan genuen aurrekoan Moskuk asko harritu gintuela, eta Astrakanera zihoan trena hartzea zen orduan gure kezka nagusia. Egun pare bateko eskarmentua Errusiako hiriburu erraldoian mesedegarri suertatu zitzaigun, asmatu genuen lehenbizi tren geltokiarekin, eta gero bagoia eta ohatze zenbakiekin. Horrela, bostok aspaldiko tren bidaiarik luzeenari ekin genion, 31 ordu guztira!

Moskutik 1.500 km. daude Astrakaneraino, hego-ekialderako norabidean. Etxeko ordutegian baino bi ordu aurreratuago daude bi hiriok, baina Errusiako geografiaren barruan, alde nabarmenagoak badira: beste muturrean, Vladivostoken, hamar ordu lehenago argitzen du egunak eta iluntzen gauak. Gure trenean bi gau oso eta tarteko eguna eman ditugu, eta munduko beste koordenada batzuetan gabiltzala jakiteko datu adierazgarri bat: ondoko gelatxoan zihoan islamdarrek, bere fedea agintzen zion moduan, bost aldiz egiten zuen otoitz egunero. Mekara begira errezatu ohi dute beti. Ekialdera begira ikusi izan ditugu, eguzkiaren sortaldere belaunikatzen, baina Sabuj bagoiko kidea mendebaldera begira makurtu da hemen: eguzkia sartu den lekuan kokatzen du Arabia.

Trena iritsi da Astrakanera. Ur putzu ugari eta padura asko ikusi dugu leihatilatik: Volga ibaiak 3.700 km egiten ditu Errusiako geografian barrena, eta nabigagarria da ia bere ibilbide osoan. Kanal sistema baten bidez, Baltikoraino joan daiteke, eta Don ibaira doan ubide bat hartuz gero, Itsaso Beltzera eta Mediterraneora ere bai.

Kaspiar Itsasoan bere urak hustu aurretik, delta bat osatzen du Volga ibaiak. Nafarroaren tamainako hiruki horren goiko muturra Astrakanen dago, eta handik, zuhaitz erraldoi baten



Goian, taldekideak, Kaspiar Itsasoan. Behean, Astrakango Kremlin barruan dagoen katedral ortodoxoa.



antzera, ehunka adar zabaltzen ditu. Guk, mapak dioenez, ez dugu erraza izango labirinto horretan aurrera egitea, baina ahaleginduko gara. Gure kalkuluen arabera, Astrakan hirian ibaiaren ur maila oso altu dago; udaberria da, eta bizpahiru metro hazita datoz urak. Mailarik baxuena -25 metrokoa da hemen, baina garai honetan ibaiaren ertza -23 metrotan dago. Jendeak garraio bezala erabiltzen duen ontzian sartu gara, ibaian behera 100 km jaitsi eta Olya herrira heldu gara.

Handik, ordea, beste ordubeteko bidea egin dugu biharamunean autoz Vishkako kai txikira iritsi arte.

Itsasoa edo aintzira?

Ordurako Kaspio obsesio txiki bihurtzen hasi da. Gainera, beti bezala, galdera bati erantzuna

bilatu nahian zalantza berriak sortu zaizkigu. Kaspio itsasoa edo aintzira da? Aintzira balitz, munduko handiena litzateke bere 360.000 km koadroekin. Petrolio ateratzeko orduan, legeak desberdinak dira Kaspio itsasoa izan edo lakua izan, eta inguruko bost herrialdeak ez dira ados jartzen horretan. Arraioa!; gainera, Volga ibaiak Kaspioren itsasoratzen dela esan daiteke edo aintziratzen dela esan behar da?

Itsas mailaren azpitik dagoen itsasoa bistatu dugu azkenik. Horretarako, txalupatxo bat hartu dugu, eta hantxe esan digute uraren maila -28 metrotan dagoela, baina orain 25 urte bi metro beherago zela (-30 metro). Duela 300 urte, berriz, orain baino bi metro gorago omen zegoen, eta historian gorabeherak izan dituela eta etorkizunean ere izango dituela ere garbi dago. Ur mailaren arabera, Kaspioren azalera ere aldatu egiten da, noski: zenbat eta urak gorago, orduan eta luzera eta zabaleraren handiago itsasoa.

Eguraldia goibel dago, euri zaparradak ez gaitu busti, baina txalupak altxaturiko zipriztinek blai utzi gaituzte. Gure harridurarako, hain gazia espero genuen ura geza da; Volga ibaiaren sasoiko ur emari handiaren ondorioa dela begi bistan dago. Kaspiar Itsasoaren iparraldean gertatzen da hau, baina Hegoaldeko Kaspioren gatza ateratzen dute, hemendik 1.000 km hegoalderago.

Moskura hegazkinez itzuli eta etxera bidean jarri gara. Jordania aldera abiatzeko egun bat besterik ez daukagu; Moskun minigona dararmaten emakumeak atzo utzi eta begi bakarria bistan duten andreak ikusiko ditugu bihar. Hegazkinean puztutako orkatilek bere onera etortzeko betarik ez dute izan, eta hori gutxi balitz bezala, beso banatan txertoa jarri behar izan dugu... Itsaso Hila dugu hurrengo zita, baina hain presaka ibili beharrek ia akabatu gaitu.

Errusia, itsas mailaren azpitik ia 8.000 metrora

✕ Moskutik (160m) Astrakaneraino (-25m) apenas dagoen desnibelik, eta lautada erraldoi bat da ia Europako Errusia guztia. Horrek asko erraztu ditu trenbideak, errepideak eta ibai nabigagarriak osatzen duten garraio sarea. Pangea egitasmoko kideok Kaspiar Itsasoa dugu helburu oraingoan, baina mendia gustuko duzuenoi beste Errusia bat egingo zaizue ezagunagoa, mendialdea.

Ural mendikatea (2.000 metrotik beherakoak) bereizten ditu Europa eta Asia. Komunismo eta Lenin tontorrak (7.495 m eta 7.165 m hurrenez hurren) Asia aldean daude, eta euskaldunen bisita ugari izan dituzte. Himalaya eta Karakorum-

dik kanpo dauden mendirik altuenak dira. Errusia hegoaldean, Kaspiar Itsasoaren eta Itsaso Beltzaren artean, Kaukaso mendikatea dago, eta bertan kokatzen da Europako gailurrik altuena: Elbruz mendia (5.642...m). Kontinente bakoitzeko tontor garaienak igotzen dituztenak gailur hau zapaltzen saiatzen dira, baita beste mendizale eta eskizale asko ere. Altai mendikatea (4.000 metro pasatxo) da gure mendizaleek ezagutu berri dutena, Mongolia eta Errusia arteko mugan. Bertan egon direnek diotenez, altuerak baino gehiago inguruak egiten ditu erakargarri. Guk sakonuneetara joko dugu oraingoz, mendialdeak bertikalaren maitaleei utzita.



Josu Iztueta